

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako  
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritariarena, 2019-2021 urteetarako Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren Lan Hitzarmenaren erregistroa, gordailua eta argitarapena agintzen duena (20000965011981 kodea).*

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

Delegación Territorial de Trabajo y  
Seguridad Social de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de Fabricación de Pasta, Papel y Cartón de Gipuzkoa para los años 2019-2021 (código 20000965011981).*

## **75. artikulua. Geroa borondatezko gizarte aurreikuspenerako erakundea.**

Sektoreko enpresa eta langileak Geroa Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeari atxikitzea eta horra egin diren ekarpenak onartu dira eta horretarako ondoko erabakiak hartu dira:

1. Oinarrizko hitzarmen kolektibo honek uki tzen dituen langile eta enpresak, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Erakundearen Erregistroan 178-G zenbakiz izena emanda ager tzen den Geroa Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Erakundeari atxi ki tzea.
2. Akordio hauek Gipuzkoako pasta, paper eta kartoi fabrikazioaren alorrean diharduten enpresa eta langile guztien tzat dira. Hori dela eta, aipatu akordioen ezarpen eremua indarrean dagoen 1994ko Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoi Fabrikazioa hitzarmen kolektiboko 1. artikuluan eta indarrean dagoen Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoi oinarrizko hitzarmen kolektibora 1997. urtean gehitutako zenbait artikulua eta xedapen aldatzeko eta beste batzuk gehitzeko akordioko 2. artikuluan, hurrenez hurren, 1994ko abuztuaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 158. alean, eta 1997ko apirilaren 14ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 68. alean argitaratuak, adierazitako eremu funtzionala eta pertsonal eremuarekin bat etorriko da. Hortaz, aipatu eremuetan sartzen direlarik, pasta, paper eta kartoi fabrika tzen duten enpresa eta lantegi guztientzat eta horietako langile guztientzat izango dira akordio hauek, nahiz eta horiek enpresa barruko itunak edo hitzarmen kolektiboak egindakoak izan.
3. 1994ko ekainaren 20ko Gizarte Segurantzako Legeko 39.2 artikuluan adierazitakoaren kariaz, akordio honek uki tzen dituen enpresa eta langile guztiak derrigorturik daude Geroa Borondatezko Gizarte Aurrezain tza rako erakundera honako ekarpenak egitera:

— **2019ko abuztuaren 1etik aurrera**, langileagatik Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorriari ordain tzen zaion kotizazio oinarriaren % 1,4; **hortik % 0,7 langilearen kargura** izango da eta **beste % 0,7 enpresaren kargura**.

## 2019-2021 URTEETARAKO GIPUZKOAKO PASTA, PAPER ETA KARTOIGINTZAREN HITZARMEN KOLEKTIBOIA SINATZEAREN AKTA

### Sindikatuak

#### LAB

Aitor Lasa  
Jesús M<sup>a</sup> Gascón  
Jon Ormaechea  
Yoana Méndez  
(aholkularia)  
Jon Ander Goñi  
(aholkularia)

#### CCOO

Txomin Vinagre  
José Antonio Jaén  
Miguel Angel Ruiz  
José Antonio Hernández  
Gorka Alvarado  
(aholkularia)

#### ADEGI

Iñaki Olasagasti  
Belén de la Fuente  
Argiñe Ormaetxea  
Iñaki Berrospe  
Idoia Urkiola  
Nerea Zamacola

### Akten idazkaria

Víctor Acedo Nabal

Donostian, 2019ko uztailaren 11n, 11:00etan, Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitzan, eta akten idazkari gisa Víctor Acedo Nabal PRECOri atxikitako profesionalak parte hartuta, bildu dira bazterrean aipatutako pertsonak. Pertsona horiek 2019ko urtarrilaren 25ean eraturako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren Hitzarmen Kolektiboaren Negoziazio Mahaiko kide diren sindikatuen eta enpresa-erakundearen ordezkartzan bildu dira eta hau adierazten dute:

LEHENIK.- 2019ko uztailaren 5eko Negoziazio Mahaiaren bileraren ondoren, eta patronalak aurkeztutako azken proposamenaren ostean, sindikatuak sektoreko langileen asanbladetara eramane zuten proposamen hori. Asanblada horietan bidezko kontsultak egin eta gero, sindikatuak egiaztatu dute parte hartu zuten langile gehienek oniritzia ematen diotela patronalaren azken proposamenari. Hartara, egiteko zituzten mobilizazioak bertan behera utzi dituzte.

BIGARREN.- Aurrekoa ikusirik, eta Negoziazio Mahai hau eratzearen aktan (2019ko urtarrilaren 25ekoan) islatzen den ordezkartzan oinarrituta, **ADEGI**ren ordezkartzak, enpresen ordezkartzaren % 100ekin, eta **CCOO** sindikatuak (sindikatuaren ordezkartzaren % 27,66rekin) eta **LAB** sindikatuak (sindikatuaren ordezkartzaren % 27,66rekin) —bien artean sindikatuaren ordezkartzaren % 55,32 biltzen dute— **adostu dute akta honi eransten zaion hitzarmen kolektiboa sinatzea.**


HIRUGARREN.- Lan-agintaritzari eskatzen diote akta hau eta 2019-2021 urteetarako Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren Hitzarmen Kolektiboaren testua inskribatzea, erregistratzea eta GAO aldizkarian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Nieves Martínez Gayoso Gipuzkoan PRECOren kudeaketaren arduradunari baimena ematen diote, Hitzarmen honen Negoziazio Mahaiaren izenean eta ordezkartzan, beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiteko Akta hau eta 2019-2021 urteetarako Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren Hitzarmen Kolektiboaren testua inskribatzeko, erregistratzeko eta GAO aldizkarian argitaratzeko.

BOSGARRENA.- Era berean, aldeek adostu dute hurrengo bilera 2019ko irailaren 19an, 10:00etan, egitea Lan Harremanen Kontseiluaren Gipuzkoako egoitzan, kategoria profesionalen batzorde parekidea eratzeko helburuarekin.

Eta beste gairik ezean, bilera amaitutzat jo da adierazitako lekuan eta datan.

LAB  


CCOO  


ADEGI  


El Secretario  
